

i-gipuzkoa2010 | 

GIPUZKOA INFORMAZIOAREN  
GIZARTEAN

2006  
**ESTRATEGIA**  
2010

**GIPUZKOA**  
berrikuntza. lurraldea  
territorio de innovación  
[www.i-gipuzkoa.net](http://www.i-gipuzkoa.net)



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua  
Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento



1.- AURKEZPENA	5
2.- ABIAPUNTUA: GIPIZKOA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN	9
2.1.- GARATUTAKO EKINTZAK: EGIPUZKOA PLANA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN	11
2.2.- GIZARTE GIPIZKOARRA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN SARTZEKO PROZESUA	13
3.- ORIENTAZIO POLITIKO NAGUSIAK	15
3.1.- ETORKIZUNA ETA GARAPEN-EREDUA: GIPIZKOA BERRITZAILEA 2020	17
3.2.- i2010 EUROPAKO ESPARRU ESTRATEGIKOA	17
4.- i-gipuzkoa2010 ESTRATEGIA: METODOLOGIA ETA LANTZE-PROZESUA	19
5.- i-gipuzkoa2010 ESTRATEGIA: LEHENTASUNAK ETA OINARRI ESTRATEGIKOAK	23
6.- i-gipuzkoa2010 PROGRAMA: SARRERA	27
7.- i-gipuzkoa2010 PROGRAMA: PERTSONAK	31
7.1.- HELBURUA	33
7.2.- PLANTEAMENDU OROKORRA	33
7.3.- JARDUERA-LERROAK	34
7.4.- NEURRIAK	36
7.5.- ADIERAZLEAK	36

8.- i-gipuzkoa2010 PROGRAMA: ENPRESAK	39
8.1.- HELBURUA .....	41
8.2.- PLANTEAMENDU OROKORRA .....	41
8.3.- JARDUERA-LERROAK .....	42
8.4.- NEURRIAK .....	43
8.5.- ADIERAZLEAK .....	44
9.- i-gipuzkoa2010 PROGRAMA: EZAGUTZA	45
9.1.- HELBURUA .....	47
9.2.- PLANTEAMENDU OROKORRA .....	47
9.3.- JARDUERA-LERROAK .....	48
9.4.- NEURRIAK .....	50
9.5.- ADIERAZLEAK .....	50
10.- i-gipuzkoa2010 PROGRAMA: ADMINISTRAZIOA	51
10.1.- HELBURUA .....	53
10.2.- PLANTEAMENDU OROKORRA .....	53
10.3.- JARDUERA-LERROAK .....	54
10.4.- NEURRIAK .....	55
10.5.- ADIERAZLEAK .....	55
11.- JARDUERA ETA JARRAIPEN PLANAK	57
12.- ERANSKINA: PARTE HARTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA	61

## TAULEN AURKIBIDEA

---

3.1. taula- eGipuzkoa Plana: laburpen-taula .....	12
7.1. taula- i-gipuzkoa2010 Pertsonak Programaren adierazleak .....	37
8.1. taula- i-gipuzkoa2010 Enpresak Programaren adierazleak .....	44
9.1. taula- i-gipuzkoa2010 Ezagutza Programaren adierazleak .....	50
10.1. taula- i-gipuzkoa2010 Administrazioa Programaren adierazleak .....	56



AURKEZPENA







## 1.- AURKEZPENA

Gipuzkoa Informazioaren Gizartean ekimenaren baitan 2006-2010 aldirako ezarritako jarraibideak aurkezten dira agiri honetan (i-gipuzkoa 2010 estrategia).

eGipuzkoa plana onartu zenetik izugarria izan da informazioaren gizarteak lortutako aurrerapena –informazioaren gizartean sartzeko aukerak, informazioaren gizartearen kalitatea, gizarte osoaren erabilera (herritarrak, enpresak, ikastetxeak, administrazioa...)- eta informazioaren gizarteak eskainitako edukiek lortutako aurrerapena, eta lehenengo etapa ondo bete dela esan daiteke.

Zentzu horretan, eGipuzkoa plana onartu zenetik gure lurraldean eta gure herritarren artean pixkanaka hedatu dira eta gero eta ugariagoak dira informazioaren gizarteari garrantzia ematen dioten enpresak, ikastetxeak eta administrazioak.

Gipuzkoan Internet erabiltzen duten herritarrak guztizko biztanleriaren % 40ra iristen dira. Gainera, etxetik bertatik egiten diren konexioak ugartzen ari dira eta konexioen kalitatea hobetzen ari da.

Enpresa gehienek dute Internetera sartzeko aukera, hain zuzen 10 langile dituzten enpresen artetik % 91ek eskaintzen dute aukera hori. Halaber, bikoiztu egin da web-orria duten enpresen kopurua eta, gaur egun, bost enpresen artetik batek du web-orria.

Aurrerapauso handiak eman dira, era berean, ikastetxeetako ekipamendu digitalari, konektagarritasunari eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerari erreparatuz. Eta, jakina, aurrerapen handia lortu da aipatutako teknologiek inbertsionatutako unibertsitateko ikasketak eta lanbide-heziketako ikasketak egiten dituzten ikasleen ikuspegitik.

Administrazio gipuzkoarrak eskaintzen dituen online zerbitzuei dagokienez, zerbitzu gehiago eskaintzeaz gain, zerbitzu horien garapena eta kalitatea hobetu dira, eta horren erakusle dira zerga-aitorpen telematikoak, online eskaintza duten udaletxe gipuzkoarrak edo gipuzkoa.net atarira egindako bisitak.

Oso garrantzitsua izan da eGipuzkoa planak prozesu digital honetara egindako ekarpena, jarduera ugari barne hartuz. Baina ondorengo lerro hauetan, ez dugu gu asetzeko emaitzen balorazio positiboa egiteko asmorik.

Gaur egun, inoiz baino gehiago, erronka ekonomiko eta sozial berriei erantzun behar zaie eta, horretarako, iraganen baino azkarrago jokatu behar dugu eta egin beharreko lana antolatu ondoren esku hartu.

Gipuzkoa, bai eta gure inguru ekonomiko eta sozialeko lurraldeak, etengabe ari dira aldatzen, eta aldaketa horien ondorioz, behar ekonomiko eta sozial berriak sortu dira. Eta erronka horiei aurre egitea eta erantzutea lortu behar dugu Gipuzkoako Foru Aldunditik eta bertan txertatu behar dugu i-gipuzkoa 2010 Estrategia.

Aipatutako Estrategiaren oinarrian hainbat gogoeta eta proposamen hartu dira erreferentziazko tesuinguru orokor edo orientazio politiko garrantzitsu bezala:

- Aurreko eGipuzkoa planak garatutako ekintzak eta lortutako emaitzak. Horretarako, garatutako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egin da.
- Gizarte gipuzkoarra Informazioaren Gizartean sartzeko prozesua, aipatutako prozesuaren etengabeko jarraipena eginez.
- Datozen urteetarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren eszenategia eta jarduera-esparrua, hau da, 2020ko Gipuzkoa berritzailea.
- Europar Batasunak Informazioaren Gizartearen esparruan egindako gogoeta eta orientazioak, i2010 ekimenean islatuta.
- Esparruan adituak diren pertsonak gogoeta egiteko eta parte hartzeko prozesu zabala. Gizarte gipuzkoar osoa barne hartzea lortu da eta Estrategia honetara egindako ekarpenengatik nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiot.

i-gipuzkoa2010 Estrategiak Gipuzkoa berritzailea aukeratu du datozen urteetan esku hartzeko eszenategi bezala. Hau da, Gipuzkoa lurralde berritzailea eta lehiakorra izatea lortu behar da, aberastasuna, enplegua, ongizatea eta gizarte-kohesioa lortzeko konpromisoa irmoki beteko duena.

Era berean, i-gipuzkoa2010 Estrategia bat dator Europar Batasunaren esparru estrategiko berriarekin. Horren arabera, ezagutza eta berrikuntza hazkunde iraunkorra lortzea laguntzen duten faktoreak dira, eta funtsezkoak dira, gainera, informazioaren gizarte integratzaile bat osatzeko. Eta informazioaren gizartea esaten dugunean, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera zerbitzu publikoetara, ETEetara eta etxeetara zabalduko dituen gizartea dela ulertu behar dugu.

Gure lurraldean informazioaren gizartearen garapenarekin bete nahi diren helburuak edo erronkak gure ekonomiarekin eta gizartearekin berarekin daude zuzenean erlazionatuta. Hain zuzen: globalizazioa eta, horrekin batera, lehiakortasun ekonomiko (errentaren eta enpleguaren hazkundera), bizi-kalitatearen hobekuntza eta gizarte-kohesioa.

Aipatutako guztiaren bidez, Gipuzkoara eta bertako herritarren artera hazkunde iraunkorra ekarriko duen eredu baten alde lan egitea eta eredu bat osatzea lortu nahi da. Zentzu horretan, ezin da ahaztu Gipuzkoan aldaketa ekonomiko eta sozial garrantzitsuak gertatu direla, hala nola gizartearen zahartzea eta inmigrazioa.

**Joaquín Villa**

Lehenengo Diputatu Nagusiordea  
Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Foru Diputatua

ABIAPUNTUA: GIPUZKOA  
INFORMAZIOAREN GIZARTEAN





## 2.- ABIAPUNTUA: GIPUZKOA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN

### 2.1.- GARATUTAKO EKINTZAK: EGIPUZKOA PLANA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2002ko martxoan onartu zuen eGipuzkoa plana. Planaren helburu orokorra da “Gipuzkoa Europako herrialde aurreratuen artean kokatzea Informazioaren Gizarteari dagokionez eta, era berean, Informazioaren Gizarteak eskaintzen dituen aukerak eta abantailak herritar guztiengana zabaltzea. Hau da, Europako herrialde aurreratuenean Informazioaren Gizartearen parean jartzea lortu behar da”.

Helburu orokor hori betetzeko sei berriazko helburu zehaztu dira, hain zuzen:

- **1. helburua.** Telekomunikazio-zerbitzu aurreratuenak eskuratzeko abiadura handiko sarbidea. Gipuzkoako herritarrek, enpresek eta prestakuntza-zentroek telekomunikazio-zerbitzu aurreratuenetara abiadura handiko sarbidea egiteko aukera eduki behar dute pixkanaka.
- **2. helburua.** Prestakuntza digitala herritarrentzat. Prestakuntza eta kultura digital egokia biztanle gipuzkoar guztiarentzat.
- **3. helburua.** Enpresa-konektagarritasuna eta merkataritza elektronikoa. Gipuzkoa, enpresa-mundua Informazioaren Gizartean txertatzen ari den Europako lurralde aurreratua.
- **4. helburua.** Zerbitzu publikoak Sarean. Gipuzkoako foru-administrazioak eskaintzen duen informazio publikoa online eskuratzeko bideak erraztea eta zerbitzu publiko nagusien kudeaketa elkarreragilea egitea. Gipuzkoako udalek informazio publikoa eta kudeaketa elkarreragilea egiteko zerbitzuak online eskaintzeko bideak erraztea eta sustatzea.
- **5. helburua.** Pertsona guztiak barne hartuko dituen gizartea. Gipuzkoan pertsona guztiak barne hartuko dituen Informazioaren Gizartea osatu behar da, hori baita gizarte-koherentsia eta pertsonen bizi-kalitatearen sustapena lortzeko bitarteko egokiena.
- **6. helburua.** Kalitatezko eduki digital propioak. Bereziki zainduko da interes orokorreko berriazko eduki propioen sorrera (kultur edukiak eta prestakuntza-edukiak, euskara).

2005 arte Gipuzkoako Foru Aldundiak 57.810,4 mila euro bideratu ditu Planaren barne hartutako sei helburuak betetzeko. Gainera, batez beste 50 proiektutik gora garatu dira Planaren esparruan.

2.1. taula- eGipuzkoa Plana: laburpen-taula

(milaka eurotan)

Helburuak	Zenbatekoa guztira
1. helburua: Abiadura handiko sarbidea	247
2. helburua: Prestakuntza digitala herritarrentzat	16.361
3. helburua: Enpresa konektagarritasuna eta merkataritza elektronikoa	15.944
4. helburua: Zerbitzu publikoak sarean	20.064
5. helburua: Gizarte inklusiboa pertsona guztiarentzat	1.198
6. helburua: Kalitatezko prestakuntza eduki digitalak	3.997
<b>Guztira</b>	<b>57.810</b>

Bestalde, ondoren zehaztu dira, orientazio moduan, eGipuzkoa Planaren baitan esku hartzeko jarduerak eta baliabide gehien zuzendu diren hainbat esparru zabal:

- Gure enpresen produktibitatearen eta lehiakortasunaren hobekuntza lagundu da. Enpresen jardueran eta, batez ere, ETEen eta mikroenpresen jardueretan IKTak pixkanaka ezagutzeko eta erabiltzeko moduak erraztu dira.

Bi ardatz nagusi bereizi dira: alde batetik, sentsibilizazio, prestakuntza eta hedapenezko ekintza ugari garatu dira eta, bestetik, IKT aplikazioak ETEetan erabiltzeko urteko laguntza-programak eta mikroenpresetarako aplikazioak eta zerbitzuak eskuratzeko laguntza-programak garatu dira.

- Biztanleria gipuzkoarrak informazioaren eta komunikazioaren teknologien gainean duen prestakuntza eta hezkuntza-erkidegoak ematen dien erabilera sustatu da.

Zentzu horretan, bereziki azpimarragarriak dira: irakasleen prestakuntzarako landutako ekintzak, eduki digitalak eta IKTetan oinarritutako prestakuntza-aplikazioak sortzeko ekintzak, irakasleentzako esparruan gela digitalak eta Sarera sartzeko bestelako ekipamendu eta azpiegitura aurreratu hornitzeko ekintzak; azpimarragarriak dira, halaber, hezkuntza-materialak sortzeko eta praktika egokiak zabaltzeko erkidego birtuala sortu eta sustatzeko garatu diren ekintzak.

- Handia izan da Gipuzkoako foru-administrazioaren online zerbitzuek eta edukiek ezagutu duten garapena eta hobekuntza, bai eskaintzen duten informazioari dagokionez bai eskaintzen diren zerbitzu telematiko elkarreragileei dagokienez; era berean, gipuzkoa.net ataria berriro da eta gaikako eta Sailen araberako atariak sortu dira.

Horien artean bat aipatzearren, Foru Ogasunak zergak online ordaintzeko eskaintzen duen zerbitzua eta zerbitzuen ataria aipa daiteke. Ildo beretik, bereziki azpimarragarria da eragiketarako egiteko gako-hitzaren erabilera arautu eta zabaltzeko egin dela eta 25 langiletik gora dituzten enpresa gipuzkoar guztiek sinadura elektronikoa erabiltzeko aukera aztertu dela.

Era berean, kulturarekin eta euskararekin lotutako eduki digital propioen eskaintza eta lurralde-mailako informazioaren zerbitzua garatzea lortu da.

Eta hori guztia egiteko, nazioartean irisgarritasunarekin eta ezintasunak dituzten pertsoneri eman beharreko berriazko arretarekin erlazioan zehaztutako jarraibideak bete dira, Informazioaren Gizartearen etekin eta aukera guztiak pertsona guztiengana zabaltzeko eta iristeko.

- Gipuzkoako udalei zerbitzu telematikoen eskaintza egiteko diruz lagundu zaie, eta gaur egun asko dira web-orria duten udalak, edo helbideratu gabe dauden udal-ordainagiriak online ordaintzeko aukera ematen dutenak, edo udal-zerbitzuak eta udal-informazioa emateko plataforma telematiko bat garatu dutenak.

## 2.2.- GIZARTE GIPUZKOARRA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN SARTZEKO PROZESUA

eGipuzkoa Plana onartu zenetik, aurrerapauso garrantzitsuak eman dira Gipuzkoa Informazioaren Gizartera hurbiltzeko eta sartzeko lanean, bai herritarren artean bai enpresen artean.

Ondorengo lerroetan Informazioaren Gizartearen sartzeko aukerarekin erlazionatutako adierazle garrantzitsuenen bilakaera adierazi da. Adierazle nagusi horiek biztanleria, familia eta enpresen egoera islatzeko balio dute (adierazleei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero: [www.i-gipuzkoa.net](http://www.i-gipuzkoa.net))

- Herritar erabiltzaileen artean 10,1 portzentaje-puntuko aurrerapena lortu den bitartean, familien artean 14,1 portzentaje-puntukoa izan da hobekuntza.
- Enpresen kasuan, azken lau urteetan 16,4 portzentaje-puntuko hobekuntza izan da. Tamaina txikiagoko enpresen kasuan lortu da -10 enplegu bitartean dituztenak- Interneterako sarbidea duten enpresen tasa gehien areagotzea.

Gipuzkoak Interneten erabilerari eta sarbideari dagokienez lortutako hazkundeak EB-15ean lortutakoa gainditu du, nahiz eta, oraindik, baxuagoak diren Gipuzkoako emaitzak. Zentzu horretan, honako adierazle hauek azpimarratu beharko genituzke:

- 2001ean 10 portzentaje-puntu baxuagoa zen Gipuzkoako Interneteko biztanle erabiltzaileen portzentajea. 2004an, berriz, 6,2 portzentaje-puntukoa (2004koak dira erabilgarri dauden azken datuak).
- Dena den, bereziki azpimarragarria da 2005ean biztanle erabiltzaile gipuzkoarrek lortutako gorakada handia (% 35,1etik % 40,7ra, II. hiruileko datuak); eta emaitza horiek ikusita, aipatutako adierazlea parekatzen ari dela esan daiteke.
- Etxetik bertatik Internetera konektatzen diren familiei erreparatuz, bestalde, 12,6 portzentaje-puntuko aldea izatetik 4,6 portzentaje-puntura murriztu da hirurteko berean.
- 10 langile eta gehiago dituzten enpresen kasuan -adierazle konparagarriak erabil daitezke-, ez da gehiegi aldatu Internetek enpresa gipuzkoar horietan lortutako hedapena.





ORIENTAZIO  
POLITIKO NAGUSIAK

# 3



## 3.- ORIENTAZIO POLITIKO NAGUSIAK

### 3.1.- ETORKIZUNA ETA GARAPEN-EREDUA: GIPUZKOA BERRITZAILEA 2020

i-gipuzkoa2010 Estrategiak 2020ko Gipuzkoa berritzailea hartu du erreferentziazko eredu gisa, datozen urteetan garatu beharreko lanari begira.

Gipuzkoa berritzailearen eszenategia esatean, honako alderdi hauek ulertu behar ditugu:

- garapen iraunkorra eta neurritsua
- azken belaunaldiko azpiegiturak eta ekipamenduak

eta, azken finean,

- Gipuzkoa berritzailea eta lehiakorra, aberastasuna eta enplegua eta ongizatea eta gizarte-kohesioa lortzeko konpromisoa hartu duena.

Eszenategi horretan –Gipuzkoa 2020 (G2020) gogoeta estrategikorako prozesutik sortua–, informazioaren gizartearen sustapenarekin eta garapenarekin erlazionatutako hainbat orientazio edo ideia nagusi barne hartzen dira. Zentzu horretan, honako hauek azpimarra daitezke:

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak berrikuntza eta lehiakortasuna lortzeko funtsezko elementu gisa. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien aldeko apustua, bai lehiakortasuna lortzeko bai ikaskuntzarako bai eta gizarte-kohesioa lortzeko ere; azken finean, bizi-kalitatea hobetzeko.
- Ekimen berritzaileak sustatzea eta Unibertsitate, Teknologia-zentro eta enprekin berrikuntza-poloak sortzeko lan egitea.
- Bizitza osoan baitako ikaskuntzarako eta prestakuntzarako eredu bat. Xede horrekin, eskaria eta eskaintza ezagutu behar dira, herritarren parte-hartzea sustatu eta herritarrek dituzten eskubideak eta betebeharrak ezagutzea lortu behar da.
- Zerbitzu publikoen hobekuntza, teknologia berrien aprobeitxamendu aurreratua egiteko.
- Lan profesionala, pertsonala eta soziala bateragarri egitea.

### 3.2.- I2010 EUROPAKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

Europako Batzordeak 2005eko ekainean emandako “i2010: Europako informazioaren gizartea, hazkunde eta enplegua lortzeko” komunikazioan zehazten da Europar Batasunean datozen urteetan kontuan hartuko den esparru estrategiko berria.

([http://europa.eu.int/information\\_society/eeurope/i2010/index\\_en.htm](http://europa.eu.int/information_society/eeurope/i2010/index_en.htm))

Horren arabera, 2005eko udaberrian bildutako Kontseilu Europarrak Lisboako estrategia berriro aktibatu beharko litzatekeela adierazi zuen. Hain zuzen, Lisboako strategiaren arabera, ezagutza eta berrikuntza dira hazkunde iraunkorra lortzeko eta informazioaren gizarte bateratzaile bat osatzeko eragile nagusiak; eta informazioaren gizarte bateratzailea esatean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) zerbitzu publikoetara, ETEetara eta familien baitara zabaltzen dituen gizartea ulertu behar da.

lido horretan, i2010 esparru estrategiko berriak ekonomia digital irekia eta lehiakorra sustatzen du eta bereziki azpimarratzen ditu IKTak, EBko inklusioa eta bizi-kalitatea sustatzeko bitarteko gisa.

Xede horrekin, hiru dira informazioaren gizartearekin erlazioan Europako politikek kontuan hartu beharreko lehentasunak:

- IKTei buruzko berrikuntza eta ikerketaren inbertsioa areagotzea, hazkundea sustatzeko eta enplegu gehiago eta kalitate handiagokoa sortzeko.
- Europako informazioaren gizarteak inklusioa sustatu behar du, eta hazkundea eta enplegua garapen iraunkorrekiko modu koherentean sustatu behar ditu, zerbitzu publikoen eta bizi-kalitatearen hobekuntzari lehentasuna emanaz.
- Informazioaren espazio europar bakar bat osatzea: horren bidez informazioaren gizartearen eta komunikabideen ikuspegitik barne-merkatu ireki eta lehiakor bat sustatuko da.

Horrenbestez, bi dira aipatutako strategiaren bidez bereziki azpimarra daitezkeen helburuak:

■ **Berrikuntza eta inbertsioa: IKT eta ETEak**

IKTek eta informazioaren gizarteak ekarpen handia egiten dute hazkundea eta enplegua sustatzeko orduan. Jarduera ekonomikoa sortzeaz gain, sektore guztien produktibitatea hobetzen dute eta enpresek funtsezko arloetan berrikuntza egitea ahalbidetzen dute.

Horrela, produktu eta zerbitzu berrietan aplikatzean, negozio-eredu berriak erabiltzean eta antolamenduak eta kualifikazioak aldatzean aterako zaie etekina IKTei. Hau da, negozio elektronikoen aro berrian gaude eta IKT integratuak, web seguruen zerbitzuak eta lankidetzat bitartekoak erabiliko dira produktibitatea areagotzeko.

■ **Inklusioa, zerbitzu publikoen hobekuntza eta bizi-kalitatea**

i2010 ekimenaren bidez herritar guztiek IKTei etekina ateratzea, zerbitzu publikoak hobetzea, errentagarritasun handiagoa lortzea eta bizi-kalitatea hobetzea lortu nahi da, besteak beste. Hau da, biztanle guztiak barne hartuko dituen informazioaren gizarte sortu behar da, kalitate handiko zerbitzu publikoak eskaintzen dituen eta bizi-kalitatea sustatzen duena.

Oraingoan jarraitzen den ikuspegi integralak inklusioarekin erlazionatutako erronka berriak dakartza eta pertsona orok iresgarritasun digitala eskuratzeko dituen eskubideak azpimarratzen ditu.

IKTek bizi-kalitatara egiten duten ekarpenari erreparatuz, bestalde, lehentasunezko zatia jo da gizarteko hiru erronkari erantzutea.

Hain zuzen: zahartzen ari den gizarte baten beharrak (zahartzen ari den gizarte batean pertsonen arreta eskaini behar zaie, ongizatea, autonomia pertsonala eta osasuna hobetzeko lagungarriak diren teknologiak erabiliz), garraio segurua eta garbia (segurtasunarekin eta ingurumenarekin erlazionatutako alderdiak; errepidearen erabilera handiagoa dakarte) eta kultur aniztasuna (Europako liburutegi digitalak eta kultur ondarea, kultur anitzeko eta hizkuntza anitzeko inguruneak aurrerapen teknologikoekin eta negozio-eredu berriekin konbinatuz).

i-gipuzkoa2010  
ESTRATEGIA: METODOLOGIA  
ETA LANTZE-PROZESUA





## 4.- i-gipuzkoa2010 ESTRATEGIA: METODOLOGIA ETA LANTZE-PROZESUA

Ondorengo lerroetan aurkezten den i-gipuzkoa2010 Estrategiak hainbat elementu barne hartu ditu berau lantzeko prozesuan, hain zuzen:

- Gipuzkoa informazioaren gizartean sartzeko emandako aurrerapausoak. Aldaketa esanguratsuak egin dira jarduera-inguruan eta -esparruan administrazioarentzat eta, oro har, gizarte osoarentzat.
- eGipuzkoa Planean egindako eta barne hartutako jardueren jarraipena eta ebaluazioa (2005 zen hasierako denbora-ikuspegia), eta estrategia berri bat sustatzeko beharra. Estrategia berri horrek egindako aldaketak eta aurrerapenak erregistratzeaz gain, denbora-ikuspegi edo -esparru berri bat zehazten du.

Hori lortzeko, hainbat jarduera eta neurri landu dira, eta horien bidez gizarte gipuzkoarrak informazioaren gizartea bere egitea eta horren erabilera jarraituak eta orokortuak dakartzan etekinak azpimarratzea lortu nahi da.

Zentzu horretan, administrazio gipuzkoarrak gehien eragiten dituen esparruetara zuzendutako jarduerak sustatu dira eta lehentasuna emango zaie; ez dira kontuan hartuko, ez esplizituki behintzat, beste herri-administrazio batzuetatik edo sektore pribatutik jada sustatutako ekintzak.

- Orientazio politiko nagusiak, Gipuzkoa 2020 berritzailearen eszenategiarekin eta Europar Batasunak informazioaren gizartea sustatzeko landutako i2010 esparru estrategikoarekin erlazionatutakoak.
- Gipuzkoa informazioaren gizartearen esparruan lurralde aurreratu bat den neurrian, datozen hamar urteetan lehentasunezko estrategien eta proiektuen inguruan parte hartzeko eta go-goeta egiteko bideak sustatzea.
- i-gipuzkoa2010 Estrategia lantzeko metodoak parte-hartzea eta analisia garatzen dituen prozesu zabal bat garatu du eta lau esparrutan bereiz daiteke aipatutako prozesua: Enpresak eta ETEak, Ezagutzak eta prestakuntza, Pertsonak eta arraila digitala eta Administrazioa.

Eta honako bitarteko metodologiko hauek erabili dira:

- Aipatutako esparru bakoitza ezagutzen duten pertsona adituekin elkarrizketak egin dira.
- Nazioarteko ekimen, esperientzia edo proiektu interesgarrien benchmarking-a edo ebaluazio konparatiboa egin da, informazioaren gizartea sustatzeko helburuarekin.
- Lau lan-talde osatu dira –talde bana esparru bakoitzerako–. Informazioaren gizartearekin erlazionatuta dauden eta gizarte gipuzkoarra ordezkatzeko duten pertsonak osatzen dituzte aipatutako taldeak.
- Esparru bakoitzerako jarduera-proposamenak. Datozen urteetan Gipuzkoa Informazioaren Gizartean sustatzeko lehentasunezko jarduerak eta alderdi interesgarriak bereiziko dira.

Bestalde, agiri honen eranskinean adierazi dira i-gipuzkoa2010 Estrategia lantzeko prozesuan parte hartu duten pertsonen izenak.





i-gipuzkoa2010 ESTRATEGIA:  
LEHENTASUNAK ETA OINARRI  
ESTRATEGIKOAK





## 5.- i-gipuzkoa2010 ESTRATEGIA: LEHENTASUNAK ETA OINARRI ESTRATEGIKOAK

Hainbat urte igaro dira informazioaren gizartea, Internet eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gizarte gipuzkoarrean hedatu eta sartu zirenetik. Horien agerpena edo eragina areagotzeko proposamena egin da, gizarteak datozen urteetan ezagutuko dituen erronka eta lehentasunei behar bezala aurre egiteko lagungarria izango baita.

Hau da:

- gure ekonomiaren eta enpresen lehiakortasuna eta enpleguaren sorrera
- biztanleen bizi-kalitatea eta gizarteratzea

Zentzu horretan, i-gipuzkoa2010 Estrategia bi lehentasun edo oinarri estrategikoren gainean eraiki da, biak ere Gipuzkoak datozen urteetan gainditu beharreko erronkekin erlazionatuak:

- Informazioaren gizartea lehiakortasuna eta enplegua lortzeko: i-gipuzkoa2010 oinarri estrategikoa, Lehiakortasuna eta Enplegua

Gizarte eta enpresa gipuzkoarrek, produkzio-jarduerak nazioarteko eta munduko merkatuan sartzekak erkarri dituen erronkei eta aukerei aurre egiteko gaitasuna eduki behar dute.

Funtsezkoa da gure enpresen lehiakortasuna indartzea, produktu, kudeaketa eta pertsonekin erlazionatutako berrikuntzekin batera, eta gure enpresen produktibitatea areagotzea, gure lurraldean enplegua sortu nahi badugu. Gainera, funtsezkoa da gero eta hobeto prestatuta dagoen biztanleria aktiboak dituen enplegu-beharrei erantzun nahi badiegu.

Informazioaren gizartea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak funtsezkoak dira produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko eta, ondorioz, funtsezkoak dira enpresen errentagarritasuna hobetzeko. Horrela, ikuspegi estrategiko honetatik hainbat jarduera-lerro aurkeztu dira, informazioaren gizartea enpresa orotara zabaltzeko, bakoitzak dituen ezaugarri eta behar lehiakorrek kontuan hartuta, eta teknologia berriak prestakuntzaren eta ikaskuntzaren esparruetan behar den bezala erabiltzeko.

- Informazioaren gizartea bizi-kalitatea hobetzeko eta gizarte-inklusioa lortzeko: i-gipuzkoa2010 oinarri estrategikoa, bizi-kalitatea eta gizarte-inklusioa.

Gizartearen kohesioa lortzeko beharrari erreparatu behar zaio, zahartzen ari den gizartearen beharrei erantzun behar zaie eta herritar aktiboak prestatu behar dira, hau da, pertsona guztiak barne hartzen dituen eta inklusioa sustatzen duen informazioaren gizartea osatu behar da.

Bazterkeria digitala jasateko arrisku handien duten pertsona guztiek IKTak erabiltzeko aukera izango dutela eta behar den bezala erabiliko dituztela ziurtatuko duen informazioaren gizartea osatu behar da. Era berean, administrazioaren lana izango da ongizatea, bizi-kalitatea eta inklusioa lagunduko duten eduki eta zerbitzu digital gehiago eta hobeak sortzea.



i-gipuzkoa2010 PROGRAMA:  
SARRERA





## 6.- i-gipuzkoa2010 PROGRAMA: SARRERA

Lau programatan edo esku hartzeko arlotan garatzen dira bi oinarri estrategikoak, eta honako hauek dira aipatutako programak:

- i-gipuzkoa2010 Pertsonak Programa
- i-gipuzkoa2010 Enpresak Programa
- i-gipuzkoa2010 Ezagutza Programa
- i-gipuzkoa2010 Administrazioa Programa

Lau programa horiek harreman estua dute aipatutako bi oinarri estrategikoekin.

Horrela, Enpresen esparrua lehiakortasunarekin dago zuzenean lotuta, Pertsonen esparrua bizi-kalitatearen lehentasunarekin, eta Ezagutzen eta Administrazioaren esparruak aipatutako bi lehentasunekin daude erlazionatuta.

Dena den, ezin dugu aipatu gabe utzi programen eta lehentasunen artean dagoen elkarreragina. Horrela, adibidez, ekonomia lehiakorra eta dinamikoa lortu behar da, halaberrez, enplegua sortzeko eta, ondorioz, biztanleriaren bizi-baldintzak eta etorkizuneko aukerak hobetzeko.

Edo gizarte kohesionatu eta inklusibo bat osatzean jarduera ekonomiko berritzaileak eta enpresen ekintzailtza sustatzeko esparru egokia lortuko dugu.

Ildo horretan, programa guztietan lehentasuna eman zaio jardueretan parte hartzen duten agenteen eta agenteen sareak osatzearen artean elkarreragina sortzeari.

Ondorengo orrietan programa bakoitzaren aurkezpena egin da:

- Helburua
- Planteamendu orokorra
- Jarduera-lerroak
- Neurriak
- Adierazleak

Adierazleei dagokienez, nazioartean erreferentzia moduan erabiltzen direnak –horiei buruzko informazio nahikoa dago– barne hartu dira. Haatik, hasierako planteamendua hori izango bada ere, jarduerak garatu ahala eta adierazle gehiago behar direla ikusi ahala, “ad hoc” adierazle gehiago erabiliko dira.

Aipatutako jarduera-lerroak proiektuak eta eragiketak garatzeko eta zehazteko erreferentziatzeko esparrua edo orientazioak dira, eta guztiak urteko jarduera-planetan zehaztuko dira 2006-2010 programazioaldian.





i-gipuzkoa2010 PROGRAMA:  
PERTSONAK





## 7.- i-gipuzkoa2010 PROGRAMA: PERTSONAK

### 7.1.- HELBURUA

Informazioaren gizartea bizi-kalitatea lortzeko, pertsona guztientzako eta gizarteratzea lortzeko.

Hau da, informazioaren gizarteak gizarteko bazterkeria jasateko arrisku handien duten pertsonen –ezinduak, prestakuntza eskasagoa dutenak, adinekoak, langabetuak edo lan aktiboa ez dutenak eta kualifikaziorik gabeko etorkinak eta landa-inguruko biztanleak– IKTak eskuratzeko eta behar den bezala erabiltzeko aukera ziurtatu behar die.

### 7.2.- PLANTEAMENDU OROKORRA

Azken urtean aurrerapauso handiak eman dira biztanleria gipuzkoarra informazioaren gizartean txertatzeko orduan. Hain zuzen, 2000 eta 2005 artean biztanle erabiltzaileen kopurua (15 urte eta gehiago) bikoiztu da eta biztanleriaren % 41era iritsi da.

Haatik, oraindik biztanle gehienek ez dute beren burua Interneteko erabiltzaile gisa ikusten, eta informazioaren gizartean sartzeko orduan mugak edo baldintzak jartzen dituzten oztopoak edo faktoreak aurkitzen dituzte:

- Kultur mailako gabeziek eragindakoak, alegia, prestakuntza-mailako zein kultur mailako gabeziek ekarritako arazoak, adibidez online zerbitzuen ezagutza eskasa, edo biztanleriak nahia-go duela betiko kanalak erabiltzea informazioa eta zerbitzuak eskuratzeko. Zentzu horretan, bereziki azpimarragarria da lurralde gipuzkoarrean eskaintzen diren zerbitzuen hurbiltasuna eta kalitatea.
- Ezintasunek eragindakoak: mugitzeko ezintasuna, sentimen-ezintasuna edo ezintasun psikologikoa.
- Ezintasun teknologikoen eragindakoak: trebetasun, sentsibilizazio, motibazio eta interesik eza eta eskaintza egokitzeko beharra.
- Oztopo ekonomikoak, IKTak eskuratzeko dakarren kostu altua dela eta, batez ere kalitatezko konexioak behar dituzten zerbitzu aurreratuen kasuan. Era berean, beren konturako lan-jardunetik urrunen dauden pertsonak (langabetuak, ez-aktiboak) aipa daitezke, edo eskakizun tekniko edo teknologiko baxuko lanekin erlazionatutako langileak.
- Espazioak eragindakoak, izan ere, biztanle gutxiko herrietan edo urrun zein sakabanatuta geratzen diren gunetan ezinezkoa da Internetera konektatzea edo kalitate gutxiko konexioak dira.

Eta, azken finean, ez da behar bezala ulertu edo baloratu informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerak pertsonen bizi-baldintzak eta -kalitatea hobetzeko duten ahalmen handia.

Egoera horrek zuzenean eragiten ditu teknologia berrietatik urrunen dauden taldeak. Eragin handia dute lehen aipatutako oztopoek edo faktoreek talde horien gainean, batez ere adineko pertsonen

taldearen gainean. Halaber, antzeko egoera bizi dute pertsona ezinduek, langabetuek edo kualifikaziorik gabeko etorkinek.

Horrez gain, kontuan hartu behar da teknologia berriekin eta Internetekin erlazioatutako eskaintza kulturalki, teknologikoki eta ekonomikoki aurreratuen dauden biztanleria-taldeengana orientatu dela oro har.

Zentzu horretan, pertsona guztientzako edukiak eskaintzeko beharra azpimarratu da eta, horrekin batera, arrisku-egoeran dauden taldeetara zuzendutako zerbitzuak eskaintzeari garrantzia eman zaio; horretarako, prestakuntza, konfiantza eta, batez ere, bizi-kalitatea hobetzeko eraginkortasuna eskaintzeko beharra azpimarratu da.

Adierazitako guztiarekin batera, ordenagailuaren bidezko konexioaz gain, Internetera sartzeko beste hainbat plataforma aztertu eta sustatuko dira. Telefonía mugikorra, telebista digitala eta PDA bezalako beste plataforma teknologiko batzuk oso garrantzitsuak dira informazioaren gizartea sustatzeko eta biztanleriaren artean zabaltzeko.

### 7.3.- JARDUERA-LERROAK

Honako jarduera-lerro hauek proposatu dira:

- Atzeratuen dauden taldeen artean erabilera sustatzea
- Teknologia digitalak hedatzeko eta IKTak behar den bezala erabiltzeko laguntza eta lankidetzatza
- Bizi-kalitate baxueneko pertsonentzako azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak
- Ordenagailuez gain, Internetera sartzeko bestelako plataformak aztertzea eta sustatzea

#### 7.3.1.- Atzeratuen dauden taldeen artean erabilera sustatzea

Teknologia berriak eskuratzeko zailtasun gehien dituzten pertsonen artera teknologia berriak hurbiltzeko, horien gaineko prestakuntza eskaintzeko eta konfiantza bereganatzeko helburuarekin, hainbat komunikazio-ekintza, sentsibilizazio-ekintza, prestakuntza-ekintza eta hedapen-ekintza garatuko dira.

Bazterkeria digitala jasateko arriskua duten pertsonen artean ekimenak eta erabilera sozialak zabaltzea eta pertsona horien bizi-kalitatea hobetzea dute xedetzat aipatutako ekintzek, eta lehentasuna emango zaio berariazko beharrei eta erabilerari buruzko prestakuntzari erantzuteko beharriari.

Esparru horretan, zehaztutako ekintza guztien helburu nagusia teknologia berrien gaineko konfiantza lortzea, aholkularitza ematea eta teknologia berriak ulertzen laguntzea da, bai eta prestakuntza eta zerbitzu horiek guztiek bizi-baldintzak hobetzeko duten ahalmen handia azpimarratzea ere. Gauzak horrela, berebiziko garrantzia du xede ditugun taldeekin lan egiten duten gizarte-eragileen eta elkarrekin lankidetzatza lortzeak, batez ere prestakuntza eskaintzeko orduan. Horrela, talde desberdinen gaitasunak, trebetasunak eta beharrak hartuko dira kontuan prestakuntza eskaintzen denean.

Era berean, pertsona guztiei online administraziora eta zerbitzuetara sartzeko aukera eskaintzeko lan egiten jarraituko da –WAI protokoloa bete nahi bada– eta diseinu unibertsala aurkeztuko da.

Ezinbestekoa da adierazitako guztia egitea zahartzen ari den gizarte honetan, izan ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek bizi-kalitatea hobetzen lagun dezakete eta lagundu behar dute, batez ere mendeko pertsonen kasuan.

### 7.3.2.- Teknologia digitalak hedatzeko eta IKTak behar den bezala erabiltzeko laguntza eta lankidetzak

Bazterkeria digitala jasateko arriskua duten pertsonekin lan egiten duten pertsonen eta gizarte-eragileen arteko komunikazioa, laguntza eta lankidetzak hobetzea lortu behar da; era berean, Administrazioarekin duten komunikazioa, laguntza eta lankidetzak hobetu behar da. Horretarako, IKTen esparruan aurreratuago dauden eta esperientzia eta trebetasun handiagoak dituzten pertsonengana joko da laguntza bila, horrela errazagoa izango baita IKTen esparrutik kanpo dauden pertsonak eta taldeak erakartzea eta barne hartzea.

IKTen erabilera bateratua eginez lor daiteke lankidetzak-espazioak osatzea eta, bidez batez, bazterkeria digitala jasaten duten pertsonekin lan egiten duten eragileek zein beste edozein pertsonak beraiantzako egokia den informazio pertsonalizatua eskuratzeko ahalbidetzen da. Era berean, esperientziak, ezagutzak eta zerbitzuak partekatzeko ekimenak sustatzea lortzen da, bai eta esperientzia arrakastatsua ezagutzera ematea ere.

Teknologia berriak bitarteko egokia dira lankidetzak handiagoa, parte-hartze handiagoa eta sareko lan handiagoa azpimarratzen duen eredu bat sustatzeko gizartearen.

Gainera, bazterkeria digitala pairatzen duten taldeak pertsona gazte aktibo lankideekin (unibertsitateko, lanbide-heziketako eta bigarren-hezkuntzako ikasleak) erlazionatzeko jarduerak sustatu behar dira eta, horretarako, laguntza eta aholkularitza teknologikoko proiektuak eta aplikazioak garatuko dira.

Ilido beretik, herritarren arteko lankidetzak garatzeko, Interneten erabilera sustatzeko beharra planteatu da, bai eta praktika egokiak zabaltzeko beharra ere.

### 7.3.3.- Bizi-kalitate baxueneko pertsonentzako azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak

Bazterkeria digitala pairatzen duten pertsonen eta bazterkeria digitala pairatzeko arriskua duten taldeekin erlacionatutako gizarte-eragileei beharrezkoak diren ekipamenduak, azpiegitura eta sistemak eskuratzeko laguntza emango zaie.

Beharrezkoak diren azpiegiturak, sareak eta ekipamenduak eskuratzeko bideak sustatu behar dira, horrela lortuko baita IKTak berariazko beharrak dituzten pertsonen artean zabaltzea.

Bestetik, kontuan hartzen badugu gure biztanleriaren batez besteko adina gero eta altuagoa dela, arreta berezia eskaini behar zaio adineko pertsonen osatutako taldeari. Horretarako, adineko pertsonak elkartzen diren lekuetan ekipamenduak jarri behar dira eta instalazio domotikoak eta IKTen inguruko bestelako bitartekoak eta aplikazioak eskaini behar zaizkie, batez ere adineko pertsonen edo bakarrik bizi diren pertsona ezinduei edo mendeko pertsonen.

Horrekin batera, esparru teknologikoan produktuak eta zerbitzuak sortzeko eta garatzeko ekimenak sustatzeko beharra aztertu da, batez ere bizi-kalitate baxueneko pertsonen artean.

#### 7.3.4.- Ordenagailuez gain, Internetera sartzeko bestelako plataformak aztertzea eta sustatzea

Ordenagailuez gain, informazioaren gizartera sartzeko beste plataforma teknologiko batzuk eta zerbitzu egokiak aztertzeko eta sustatzeko beharra planteatu da, hala nola telebista digitala, telefonia mugikorra eta beste plataforma batzuk (PDA...).

Telebista digitala da IKT teknologia hedatuena, eta funtsezko bitarteko bat izan daiteke informazioaren gizartera sartzeko eta berau garatzeko. Era berean, funtsezko bitarteko bat da biztanleria osoari informazioaren gizartean sartzen laguntzeko, batez ere pertsona zaharrenei.

Telefonia mugikorrek hedapen handia lortu du gizartean. Gazteen artean erregistratu da telefonia mugikorraren erabilera handiena; gaur egun, telefonia mugikorrek online zerbitzuak eskuratzeko aukera eskaintzen du.

Talde profesionalek PDA bezalako gailuak eta telefonia mugikorrarekin bateratzeko eskaintzen diren aukerak erabil ditzakete informazioaren gizartera sartzeko bitarteko gisa.

### 7.4.- NEURRIAK

Honako neurri hauek proposatu dira aipatutako jarduera-lerroak garatzeko:

- Bazterkeria digitala pairatzeko arriskua duten taldeen artean zabaltzea eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea.
- Aipatutako taldeetara zuzendutako online edukiak eta zerbitzuak, bizi-kalitatea hobetzeko.
- Pertsonen artean eta pertsonen eta gizarte-eragileen artean lankidetzat egiteko, parte hartzeko eta esperientziak trukatzeko espazioak sustatzea; era berean, erabiltzaileek edukiak sortzeko eta kolaborazio-espazioak sustatuko dira (gizarte-sareak, 2.0 web).
- Bazterkeria jasateko arriskua duten taldeei ekipamenduak eta aplikazioak eskuratzeko laguntzea.
- Beste plataforma teknologiko batzuk eta horien bidez egiten den zerbitzuen eskaintza aztertzea.

### 7.5.- ADIERAZLEAK

Honakoak dira jarraipena egiteko proposatu diren adierazleak:

- Internet erabiltzen duten biztanleak (sartzeko plataforma teknologikoa bereiziz)
- Interneterako konexioa duten familiak
- Biztanle erabiltzaile ez-aktiboak edo langabetuak
- 45 urte eta gehiagoko biztanle erabiltzaileak
- Merkataritza elektronikoa (erosketak) erabiltzen duten pertsonak eta erabileraren segurtasuna
- Gizarte-erkidego batean parte hartzen duten pertsona erabiltzaileak

eta bitartekoekin erlazionatutako adierazleak:

- Sentsibilizazio-ekintzen eta hedapen-ekintzen kopurua
- Online edukien eta zerbitzuen kopurua, berariazkoak eta egokituak

Eta programaren funtsezko adierazle bezala:

#### 7.1. taula- i-gipuzkoa2010 Pertsonak Programaren adierazleak

	2000	Azken datua*	2010 helburua
1. Internet erabiltzen duten biztanleak (15 urte eta gehiagokoen %)	18,9	40,7	%70
2. Internetera etxetik konektatzen direnak (15 urte eta gehiagoko biztanleen %)	13,5	45,2	%65
3. 45 urte eta gehiago dituzten erabiltzaileak (%)	—	20,0	%50
4. Interneten erosketak egiten dituzten biztanleak (15 urte eta gehiagoko erabiltzaileen %)	—	17,9	%40
5. Gizarte-erkidego batean parte hartzen duten biztanleak (15 urte eta gehiagoko erabiltzaileen %)	—	14,6	%35

\* 2005eko datua 1 eta 2 adierazleen kasuan eta 2004koa 3 eta 4 adierazleen kasuan.





i-gipuzkoa2010 PROGRAMA:  
ENPRESAK





## 8.- i-gipuzkoa2010 PROGRAMA: ENPRESAK

### 8.1.- HELBURUA

Enpresa guztiak informazioaren gizartean sartzea, bakoitzak dituen ezaugarriak eta behar lehiakorak kontuan hartuta.

Zentzu horretan, enpresa ez-Interneten kasuan ekipamendua, Interneterako sarbidea eta oinarriko erabilerak barne hartuko dira. Era berean, informazioaren gizartean sartutako enpresen kasuan, era-bilera aurreratuak sustatuko dira, eta IKTak I+G+b esparruan barne hartuko dira.

### 8.2.- PLANTEAMENDU OROKORRA

Azken urteetan benetan bizia izan da ETE gipuzkoarrak informazioaren gizartean sartzeko garatu den prozesua, informazioaren gizarteak eskaintzen dituen bitartekoak eta aplikazioak erabili direlarik.

Hala ere, asko dira oraindik informazioaren gizartera sartzeko lehen urratsa gainditu edo eman ez duten tamaina txikiko enpresak, eta ez dituzte urrats hori emateko beharrezkoak diren informazioaren eta komunikazioaren teknologien ekipamenduak.

Atzerapen horren arrazoi nagusien artean, errentagarritasunarekin erlazionatutako ahalmenak eza-gutzen ez direla, kudeaketa egiteko gaitasun eskasa eta giza baliabide eskasa aurkituko ditugu.

Enpresa horien artean IKT teknologiak erabili eta produktibitatea areagotzea lortu behar da. Xede horrekin, informazioaren kudeaketa eta informazioa eskuratzeko bideak erraztu behar dira; gainera, enpresa hornitzaileekin, bezeroekin, finantza-erakundeekin eta administrazioarekin erlazioak izateko aukerak eman behar dira, bai eta negozio-eredu berriak garatzeko aukera ere.

Horrela, bereziki aipagarria da enpresa gipuzkoar gehienek kasuan (% 94) hamar langile baino gutxiagoko plantillak daudela; % 76k ez dituzte hiru langile baino gehiago, nahiz eta guztizko landunen tasari erreparatuz gero, nabarmenki murrizten den parte-hartzea (% 39 eta % 20, hurrenez hurren).

Bestalde, gutxiago egin da aurrera IKTen hedapenean jarduera jakin batzuen kasuan, hala nola: langile autonomoak, denda txikiak, azpikontratatistak, garraioa eta eraikuntza.

Eskuarki, dagoeneko konektatuta dauden ETEen artean informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerak dakartzan aukera eta gaitasunei buruzko ezagutzak eta informazioa hobetzeko beharra antzeman da, ezagutza eta informazio egokiak eskuratzean lortuko baita lehiakortasuna eta errentagarritasuna hobetzea. Era berean, zerbitzu eta aplikazio aurreratuagoak ezagutzea eta erabiltzea lortuko da, hala nola merkataritza elektronikoa.

Ilido beretik, enpresen zuzendaritzatik IKTen esparrura zuzendutako ikuspegi estrategiko bat jarraitzeko beharra adierazi da. Hori lortzeko, funtsezkoa da enpresa-maila desberdinen eta zuzendaritza-karguen artean sentsibilizazio-prozesuarekin eta informazioa emateko prozesuarekin jarraitzea, are gehiago kontuan hartzen bada teknologia berrien eskutik prozesuak optimizatzeko eskaintzen diren aukerak gero eta gehiago direla.

Horrez gain, funtsezkoa da Gipuzkoak EBko helburuarekin bat egitea eta IKTen gaineko ikerketa sustatzea, bai eta IKTak produktu, zerbitzu eta negozio-eredu berrietan barne hartzea ere.

### **8.3.- JARDUERA-LERROAK**

Hiru jarduera-lerro barne hartu dira:

- Mikroenpresak: IKT eta informazioaren gizartea
- Negozio elektronikoak
- Berrikuntza eta ikerketa estrategikoak IKTen esparruan

#### **8.3.1.- Microenpresak: IKT eta informazioaren gizartea**

Abiapuntu bezala, lehiakortasunari eusteko eta produktibitatea hobetzeko enpresa guztiek etorkizunearan IKTak enpresa-jardueran barne hartu beharko dituztela hartzen badugu, IKTak barne hartzeko jarduera integral bat proposatu da. Horri jarraituz lortuko da berriazko bitarteko eta aplikazio batzuen oinarriko erabilera-maila zabaltzea.

Programa integral horrek ezagutzak sustatzeko ekintzak barne hartzen ditu. Ezagutzak kudeaketako alderdi orokorrekin erlazionatuko dira batzuetan, eta esparru espezializatuetan goi-mailako errendimenduko aplikazioak bereizteko ezagutzekin beste batzuetan (hala nola faktura elektronikoa, kudeaketa logistiko-produktiboa, segurtasuna, enpresa-prozesuen ziurtapen digitala, sistemen integrazioa, kolaborazio-plataformak...).

Hasierako planteamendu hori osatzeko erabilera digital baxuagoko jardueretara zuzendutako berriazko ekintzak proposa daitezke, hala nola enpresa eta pertsonentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten jarduerak (logistika-banaketako jarduerak, juridikoak, sanitarioak eta gizarte-zerbitzukoak, denda txikiak, garraioa, gremio espezializatuak, artisauek...), asko baitira multzo honetan sartzen direnak eta eragin handia izan dezakete.

Horrekin guztiarekin batera, mikroenpresei aholkularitza-mailako laguntza eman behar zaie, bitarteko eta zerbitzu berriak pertsonalizatzeko eta egokitzeko lan eginez.

#### **8.3.2.- Negozio elektronikoak: erabilera aurreratua eta zerbitzuak sortzea**

Oso gutxi dira enpresa gipuzkoarren artean egiten diren online transakzioak. Enpresa gipuzkoarrek azaldu dutenez, eskaintzen dituzten ondasunak edo zerbitzuak online truketarako egokiak ez izatea da horren arrazoi nagusia.

Dena den, gaur egun zailagoa da enpresen artean transakzio elektronikoak egitea, eskaintzen diren aukerak eta praktika egokiak ondo ezagutzen ez direlako –enpresa hornitzaileen ikuspegitik zein bezeroen ikuspegitik– edo beste enpresa batzuekin lankidetzan jarduteko ekintza gutxi garatzen direlako.

Era berean, beharrezkotzat jo da IKTak garatzeko estrategia sustatzea eta enpresen estrategia orokorrean barne hartzea, bai eta egokitzapen digitala egiteko ibilbideak eta moduak adieraztea ere.

Orientazio moduan, kudeaketaren eta salmentak eta erosketak egiteko eta bezeroekin harremanak izateko sistema elektronikoen erabilera aurreratua egiteko ekintzak proposatu dira, enpresek dituzten oztopo teknologikoak eta antolakuntzakoak mugatzen direlarik.

Eskaria sustatzeaz gain, Gipuzkoako sektorearen eskaintza sustatzeko beharra aztertu da. Horretarako, informazioaren eta komunikazioaren teknologien esparruan eta informazioaren gizartearen esparruan zerbitzu eta enpresa aurreratuak sortu behar dira halaberrez.

### 8.3.3.- Berrikuntza eta ikerketa estrategikoak IKTen esparruan

IKTei buruzko ikerketaren eta berrikuntza estrategikoaren aldeko apustua egin behar da, horrela lortuko baita Europaren lidergoa ziurtatzea eta enpresen nazioarteko lehiakortasuna sustatzea. Gauza bera esan daiteke Gipuzkoari begira.

Zentzu horretan, garrantzi berezia eman zaie enpresa- eta industria-ehun gipuzkoarrean barne hartu eta egokitu ahal diren berrikuntzako ekintzei, bai eta unibertsitate, teknologia-zentro eta berrikuntzako eragileen arteko lankidetzari ere.

Ondorengo lerroetan Europar Batasunak Ikerketako VII. Esparru Programan kontuan hartutako oinarri teknologikoak adierazi dira, bakoitzak balio erantsiaren eta hazkunde ekonomikoaren eta enpleguaren gainean duen eragina kontuan hartuta. Honakoak dira aipatutako oinarriak: ezagutzaren teknologiak, edukiak eta sormena, komunikazio-sare aurreratuak eta irekiak, software segurua eta fidagarria, sistema bateratuak eta nanoteknologia.

## 8.4.- NEURRIAK

Ondoren adierazi dira proposatutako jarduera-lerroak garatzen dituzten neurriak:

- IKTen eta informazioaren gizartearen hedapena eta horien gaineko sentsibilizazioa erabilera digital baxuko mikroenpresetan eta zerbitzu-enpresetan.
- Mikroenpresetara egokitutako eta berriazko IKT aplikazioen erabilera zabaltzea eta ezartzea.
- ETEetan IKTen erabilera aurreratua hedatzea, sentsibilizazio-ekimenak egitea eta IKTen erabilera sustatzea (kudeaketa eta negozio elektronikoak).
- IKTen zerbitzuak eta enpresak sortzeko bideak sustatzea.
- Enpresa gipuzkoarretan eta estrategia europarraren esparruan IKT ikerketa eta berrikuntza sustatzea.

## 8.5.- ADIERAZLEAK

Honako adierazle hauek proposatu dira jarraipena egiteko:

- 10 lanpostu baino gutxiago, Internetarako sarbidea eta banda zabaleko konexioa duten enpresak (2 lanpostu eta 3-9 lanpostu bitartean).

- Intraneta eta Estraneta erabiltzen duten enpresak (9 lanpostu arte eta 10 lanpostu eta gehiago).
- Merkataritza elektronikoa erabiltzen duten enpresak (9 lanpostu arte eta 10 lanpostu eta gehiago).
- Ikerketako proiektu europarretara sartzen diren enpresak eta berrikuntza teknologikoko enpresak (10 lanpostu eta gehiago).

Eta programaren funtsezko adierazle gisa:

8.1. taula- i-gipuzkoa2010 Enpresak Programaren adierazleak

	2000	Azken datua	2010 helburua
1. 10 lanpostu baino gutxiago eta Interneterako sarbidea duten enpresak (%)	23,0	47,7	%90
2. 10 lanpostu eta gehiago eta Estraneta duten enpresak (%)	11,1	17,0	%50
3. 10 lanpostu eta gehiago dituzten eta merkataritza elektronikoaren erabiltzaileak diren enpresak (%)	4,0	12,0	%50

\* 2005eko datua 1 adierazlearen kasuan, 2004koa 2 adierazlearen kasuan eta 2003koa 3 adierazlearen kasuan

i-gipuzkoa2010 PROGRAMA:  
EZAGUTZA







## 9.- i-gipuzkoa2010 PROGRAMA: EZAGUTZA

### 9.1.- HELBURUA

Teknologia berriak ezagutzaren eta prestakuntzaren esparruetan ondo erabiltzea. Hau da, teknologia berrien erabilera gizartearen ezagutza- eta ikaskuntza-prozesuan barne hartu behar da, talde desberdinetara egokitutako edukiak sortuz, bai eta horien arteko lankidetzak erraztuz ere.

Internetek agerpen eta zabalkunde izugarria du gizartean eta gizartearen lehentasunen artean dago, hau da, agerpen eta eragin handia du gure ekonomiaren eta gure enpresen gaur egungo eta etorkizuneko lehiakortasunean eta biztanleriaren bizi-kalitatean. Esparru orokor hori hartuta, ezagutza eta prestakuntza eta, ondorioz, online ezagutza eta prestakuntza jarduera guztiak egituratzen dituen ardatza eta funtsezko oinarria dira.

### 9.2.- PLANTEAMENDU OROKORRA

Aurreko programazioaldian ikastetxeei informazioaren gizartean sartzeko lagundu zaie eta, xede horrekin, azpiegiturak eta ekipamenduak hornitu dira. Ildo horretan, ikastetxe gipuzkoarrek gaur egun hornikuntza teknologiko egokia eta dituzten beharretara egokitua dutela esan daiteke.

Fase hori osatzeko, lehentasuna eman behar zaie informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatzeko jarduerari eta kalitatezko eduki egokiak sortzeko beharriari, beti ere ikastetxeen arteko lankidetzak erraztuz eta Gipuzkoan ikaskuntza-erkidego bat sortzen lagunduz.

Hala ere, zenbait ikastetxeren kasuan eta zenbait irakasleren kasuan informazioaren gizartean sartzeko laguntza ematen jarraitu behar da oraindik, eta edukiak sakondu behar dira.

Horrenbestez, ikastetxe eta irakasleengana zuzendutako berriazko ekintzak proposatu behar dira, bai informazioaren gizartean dagoeneko sartu direnentzat bai oraindik Interneten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien oinarriko erabilera egiten dutenentzat. Ekintza horien guztien bidez teknologia berriekin erlazioatutako erabilerak eta gaitasunak dualizatzea ekidin nahi da eta irakasleen motibazioa eta egokitzapena bilatzen da batez ere.

Zentzu horretan, edukiei dagokienez, aurrerapauso garrantzitsuak eman dira edukiak sortzeko eta lantzeko orduan, eta eskariak sustatutako euskarri eta zerbitzu teknologiko aurreratuak erabili dira horretarako. Lehentasuna eman zaio edukiak sortzeko eta ezagutzera emateko prozesuan euskarri eta zerbitzu teknologiko aurreratuak erabiltzeari.

Jada garatu diren edo garatzen ari diren ekintzak osatzeko, kultur edukien sorrera sustatuko da, horien bidez kultur eta hizkuntz aniztasuna indartzeko, arraila digitala gainditzeko eta etengabeko ikaskuntza lortzeko.

### 9.3.- JARDUERA-LERROAK

Lau jarduera-lerro aurreikusi dira:

- Erabilera aurreratua eta egokia irakasleen eta irakaskuntza-erkidegoaren aldetik
- Lankidetzeta-espazioa edo ikaskuntza-erkidegoak
- Ezagutzaren gizartea unibertsitateetan
- Online prestakuntza herritar eta ETEentzat
- Inklusioa, etengabeko ikaskuntza eta kultur eta hizkuntz aniztasunari buruzko edukiak

#### 9.3.1.- Erabilera aurreratua eta egokia irakasleen eta irakaskuntza-erkidegoen aldetik

Erabilera aurreratu hau irakasleentzako eta hezkuntza-erkidegorako “kalitatezko online prestakuntza-estilo” bat sortzeko esparruan barne hartu da.

Erabilera aurreratua eta partekatua egiteko ezinbestekoa da edukiak egituratzea eta ezagutzera ematea (liburutegi baten antzera), edukien eskaria sustatuz. Era berean, e-Prestakuntzaren kalitatea sustatzeko esparru orokor bat behar da. Xede horrekin, arauak, estandarrak eta metodologiak zehaztuko dira kalitatezko edukiak sortzeko, eta berariazko edukiak sortzeko ikastetxeen kasuan (eta horiek irakasteko).

Esparru hori prestakuntza-prozesuaren ikuspegi integralean barne hartuta dago, bai zuzeneko prestakuntzaren kasuan bai bertaratu gabeko prestakuntzaren kasuan.

Eta, era berean, eduki digitalak garatu behar dira eta e-Prestakuntza eskaini behar da ikastetxeen kalitate-programetan.

Gainera, hezkuntza-esparruak eta, batez ere, hasierako mailek, eta horrekin erlazionatutako jarduerak esparru egokia osatzen dute talde jakin batzuk informazioaren gizartean sartzeko (lan-egoerak edo adinak eraginda informazioaren gizaritetik kanpo daude).

#### 9.3.2.- Lankidetzeta-espazioa edo ikaskuntza-erkidegoak

Lankidetzeta-espazio honetan “praktika egokien” proiektuak eta ekimenak zabaldu eta sustatuko dira. Aldi berean, hezkuntza-erakundeen arteko eta hezkuntza-erakundeen eta horiekin erlazionatutako eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzeta egiteko espazioak osatuko dira.

Halaber, funtsezkoa da jada teknologikoki konfiguratu diren baliabideak eta zerbitzuak erabiltzea online prestakuntzak dakartzan aukerak ezagutzeko eta oztopoak dituzten ikastetxeak eta hezitzaileak barne hartzeko.

Bestalde, bereziki azpimarragarria da enpresen eta hezkuntza-sektoreen arteko lankidetzaren beharra. Funtsezkoa da, zentzu horretan, elkartzeko eta proiektuak batera garatzeko arloak sortzea.

#### 9.3.3.- Ezagutzaren gizartea unibertsitateetan

Unibertsitateko hezkuntza, hezkuntza-maila aurreratuena den neurrian, erreferentziazko eredua da ezagutzaren gizartea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak enpresa-sektorera eta, oro har, gizartera zabaltzeko eta horien prestakuntza eskaintzeko.

Ezagutzaren gizartean aurrera egiteko funtsezkoa da unibertsitateko erkidegoan informazioaren eta komunikazioaren bitartekoak erabiltzen hastea eta horien bidez aplikazio eta zerbitzu berritzaileak sortzea, bai eta enpresekin batera erabiltzea ere.

#### 9.3.4.- Online prestakuntza herritar eta ETEentzat

Pixkanaka egin behar da e-Prestakuntzaren hedapena eta behar den bezala egiteko halabeharrezkoa da gizartearen kultur egokitzapena egitea eta bitartekoak eta edukiak eskaintzea. Horrez gain, neurri batean gure gizarteak bizitzako etapa batekin edo lan-egoera jakin batekin erlazionatzen du prestakuntza eskuratzeko aukera.

Bestalde, online prestakuntza eta ikaskuntza prestakuntza tradizionalarekin bateragarria izatea lortu behar da. Era berean, gizartea (herritarrak, enpresak...) bizitza osoan baitako ikaskuntza-prozesu batean edo enpresa-garapen zein garapen profesionaleko prozesu batean murgildu behar da.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da biztanleria eta enpresa-ehuna prestakuntzaren eta ikaskuntzaren beharraz ohartzea. Horrela, online prestakuntza edo informazioaren eta komunikazioaren teknologekin erlazionatutako prestakuntza zuzeneko prestakuntzarekin bateragarria egitea lortu behar da eta bizitza pertsonala eta bizitza profesionala bateragarri egiteko modua ahalbidetuko duen eskaintza sortu behar da.

Hori guztia lortzeko, interes orokorreko prestakuntza-ekintzak garatuko dira alde batetik, eta talde jakin batzuetara zuzendutako berariazko ekintzak bestetik, batez ere enpresa txiki eta ertainei eta beste hainbat talderi informazioaren gizartean sartzen laguntzeko.

#### 9.3.5.- Inklusioa, etengabeko ikaskuntza eta kultur eta hizkuntz aniztasunari buruzko edukiak

Kultur edukiak eta prestakuntza-edukiak sortzea funtsezkoa da etengabeko ikaskuntza lortzeko eta herritar aktiboak prestatzeko.

Edukien artean bereziki azpimarragarriak dira ondare digitalarekin erlazionatutako edukiak, memoriaren kontserbazioarekin erlazionatutakoak eta horiekin erlazionatutako erakundeak (liburutegiak, fitxategiak eta museoak), batez ere euskararekin erlazionatutako edukiak. Gauzak horrela, "memoria historikoa" kontserbatzean (memoria digitala edo informazioaren gizartearen memoria) informazioaren gizarteak egitura-mailan duen behar bati erantzuten zaio eta objektu digitalak kontserbatzen eta identifikatzen dira.

### 9.4.- NEURRIAK

Honako neurri hauek proposatu dira:

- Online ezagutza eta ikaskuntza herritarren eta ETEen artean zabaltzea eta horien gaineko sentsibilizazioa egitea.
- e-Prestakuntzan kalitatea sustatzea eta e-Prestakuntzaren eskaria sustatzea: online edukien garapena, egituratzea eta hedapena.

- Online ikasketarako lankidetzak-espazioak eta ikaskuntza-erkidegoak sortzeko bideak sustatzea.
- IKTen erabilera aurreratua sustatzea eta unibertsitate-erkidegoak eduki berritzaileak sortzea.
- Etengabeko ikaskuntzarako eta memoria kontserbatzeko kultur edukiak sortzea.

## 9.5.- ADIERAZLEAK

Honako adierazle hauek proposatu dira jarraipena egiteko:

- Ikaskuntza-erkidego birtualen pertsona erabiltzeen kopurua
- Garatutako prestakuntza-edukien proiektuen kopurua
- Internet prestakuntzarako eta ikaskuntzarako erabiltzen duten pertsonak
- e-Prestakuntzako aplikazioak langileak prestatzeko erabiltzen dituzten enpresak
- Unibertsitateko campus birtualean matrikulatutako ikasleak

Eta programako adierazle gisa:

### 9.1. taula- i-gipuzkoa2010 Ezagutza Programaren adierazleak

	Azken datua	2010 helburua
1. Internet prestakuntzarako eta ikaskuntzarako erabiltzen duten pertsonak (15 urte eta gehiagoko biztanle erabiltzaileen %)	38,6	%65
2. e-Prestakuntzako aplikazioak erabiltzen dituzten enpresak*(%)	13,6	%50

\* 2004ko datua

i-gipuzkoa2010  
PROGRAMA:  
ADMINISTRAZIOA

10



## 10.- i-gipuzkoa2010 PROGRAMA: ADMINISTRAZIOA

### 10.1.- HELBURUA

Foru-administrazio eta udal-administrazio gipuzkoarrak herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta lehiakortasuna eta enplegua hobetzeko eskaintzen dituen eduki eta zerbitzu digitalak.

Biztanleria osoarentzat, egoera pertsonala, teknologia berrien ezagutza, aukeratutako hizkuntza eta bizilekua edozein izanik.

### 10.2.- PLANTEAMENDU OROKORRA

Azken urteetan ugaritu eta hobetu egin dira foru-administrazio eta udal-administrazio gipuzkoarrak eskaintako zerbitzu digitalak.

Hobera egin da informazio orokorreko zerbitzuei eta horiek eskuratzeko aukerei dagokienez, eta hobera egin da zerbitzu elkarreragileei dagokienez (izapideak, kontsultak, eskaerak, helbideratzeak, ordainketak, erreklamazioak...). Zerbitzu elkarreragileen ezarpena ziurtapen digitalaren eta sinadura elektronikoen sistemen pixkanakako ezarpenari esker lortu da.

Hemendik aurrera herritar, enpresa eta, oro har, gizarte osoari administrazio gipuzkoarraren zerbitzu digitalak eskuratzeko aukera errazteko irizpide estrategikoari jarraituko zaio. Herritarren ongizatea eta erosotasuna lortu nahi da eta kudeaketa publikoaren gardentasuna ziurtatu eta enpresen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetu nahi dira.

Gainera, online zerbitzuen eskaintzaren bidez gizarte gipuzkoarreko eragileen artean erabilera gero eta aurreratuagoak zabaldu nahi dira eta, horrekin batera, informazioaren gizartera sartzeko plata-forma gehiago sustatuko dira.

Zentzu horretan, online edukiak eta zerbitzuak hobetu behar dira, herritarren eta enpresen asetasuna lortzeko, bai informazio publiko orokorreko zerbitzuen kasuan bai zerbitzu elkarreragile eta transakzionalen kasuan.

Hori guztia lortzeko, Gipuzkoan bizi diren herritarrengana zuzendutako edukiak sortuko dira eta Gipuzkoa ezagutzera emateko edukiak sortuko dira. Kultura, turismoa, espazioa, ingurumena eta ekonomiari buruzko edukiak sortuko dira bai eta enpresa-ekimenak garatzeko eta erakartzeko edukiak ere. Bestalde, lehentasuna emango zaie eskaria handien duten eta gizartean eragin handien duten edukiei eta gazteentzako eta aisialdiari eta kirolari buruzko edukiei.

Online zerbitzuen bidez, halaber, pertsonen eta enpresen joan-etorriak saihestu nahi dira pixkanaka, eta erosotasuna erraztu, denbora aurreztu eta etengabeko arreta eskaini nahi da. Gipuzkoa lurralde txikia da, biztanleria-dentsitate handia du eta hainbat nazioarteko komunikabide garrantzitsuk zeharkatzen dute, eta online zerbitzuen bidez garraioak gutxiago erabiltzea ahalbidetzen da, izan ere, errepideen zati garrantzitsuenen erabilera handia da eta ingurumenaren gaineko inpaktua saihestu nahi da.

Bestalde, interes orokorreko edukien eta zerbitzuen artean, administrazio elektronikoa erabiltzeko zailtasun gehien dituzten taldeei laguntzeko zerbitzuak sortzeko garrantzia azpimarratu da.

### 10.3.- JARDUERA-LERROAK

Honako jarduera-lerro hauek barne hartu dira:

- Online zerbitzu gehiago eta hobeak
- Online administrazioaren kudeaketa eta antolamendua

#### 10.3.1. Online zerbitzu gehiago eta hobeak

Informazioa emateko online zerbitzuen eskaintza areagotzea eta hobetzea proposatu da. Era berean, administrazioari izapideak egiteko zerbitzuen eskaintza areagotzea eta hobetzea proposatu da, bai eta herritarrek lurraldeko erakunde publikoetan parte hartzeko bideak erraztea ere.

Herritarren, enpresen eta elkarten beharrei behar den bezala erantzuteko interes orokorreko ekintzak eta talde jakin batzuentzako edo lehentasunezko arloetarako ekintzak barne hartu dira.

Horrela, honakoak kontuan hartu beharreko alderdiak:

- administrazioaren online zerbitzuen erabilera areagotu behar da. Xede horrekin, eskari handien dutenak eta/edo ongizate pertsonalean eragin gehien dutenak, ETEen kudeaketa hobetzeko balio dutenak eta garapen iraunkorra eta ingurumena ziurtatzeko balio dutenak sustatuko dira.
- gero eta aurreratuagoa, elkarreragileagoa eta transakzionalagoa den eskaintzan aurrera egitea.
- lehentasunezko taldeei laguntzea, zuzenean edo zeharka, adibidez IKTak eskuratzearen eta erabiltzearen indize baxuenak dituzten taldeak eta bizi-kalitate baxuagoa dutenak; eta erabilera handieneko zerbitzuak eta lurraldearen irudi egokia islatzeko eta jarduera ekonomikoa erakartzeko balio duten zerbitzuak sustatzea.
- herritarrek parte hartzeko bitartekoak eta ekintza publikoa ziurtatzeko bitartekoak sustatzea eta lankidetzak guneak sustatzea (edukiak sortzea, software soziala...).
- zerbitzu digitaletan euskararen agerpena sustatzea.
- lurraldeko herri guztiei online zerbitzuak eskuratzeko aukera ematea pixkanaka. Hau da, Gipuzkoako udal guztiek sustatu behar dute kalitatezko online zerbitzuen eskaintza eta horiek eskuratzeko modua.
- gizartea eta gizarteko taldeak online zerbitzuek bizi-kalitatean duten eraginari buruz sentsibilizatzea. Horretarako, berriazko eskaintzaren hedapena sustatuko da.



### 10.3.2. Online administrazioaren kudeaketa eta antolamendua

Online zerbitzuen eskaintza egokitu egin behar da administrazioaren kudeaketa- eta antolamendu-ereduen ikuspegitik. Horretarako, irizpideak eta estrategiak bateratu behar dira, administrazio desberdinen diseinuaren normalizazioa lortzeko eta prozedura, aplikazio eta zerbitzu digitalak garatzeko eta ezartzeko.

Normalizazioa lortzeko irizpideen bidez hainbat alderdiren homogeneizazioa bilatzen da: identifikazio-sistemen zerbitzuak, segurtasun-jarraibideak eta ingurune seguruak eta administrazioen arteko elkarreragina lortzeko irizpideak. Era berean, kode irekiko softwarean oinarritutako aplikazioen erabilera sustatuko da.

## 10.4.- NEURRIAK

Honako neurri hauek barne hartu dira (Gipuzkoako administrazioari dagokionez):

- Eduki elkarreragileak eta transakzionalak sortzea (online eskuragarriak)
- Ongizate pertsonala, ETEen kudeaketaren hobekuntza eta garapen iraunkorra lortzeko edukiak sortzea
- Herritarrek online parte hartzeko eta lankidetzatza guneetan parte hartzeko bitartekoak sustatzea
- Euskararen agerpena sustatzea
- Udal guztien online edukien eskaintza hobetzea
- Online administrazioarako antolamendu- eta kudeaketa-ereduak normalizatzea, egokitzea eta barne hartzea.

## 10.5.- ADIERAZLEAK

- Online eskuratu ahal diren foru-administrazioaren zerbitzu publikoen kopurua
- Internet administrazioarekin erlazionatzeko erabiltzen duten pertsonak (deskargak, formulario ofizialen bidalketak, espedienteen kudeaketa elektronikoa)
- Internet administrazioarekin erlazionatzeko erabiltzen duten enpresak (formularioen bidalketak, espedienteen kudeaketa elektronikoa)
- Zergen aitorpen telematikoen kopurua
- Erakundearen ataria erabiltzen duten pertsonen kopurua
- Zerbitzu elkarreragileak eskaintzen dituzten udalen kopurua

Eta programaren funtsezko adierazle gisa:

10.1. taula- i-gipuzkoa2010 Administrazioa Programaren adierazleak

	Azken datua	2010 helburua
1. Internet administrazioarekin erlazionatzeko erabiltzen duten pertsonak (15 urte eta gehiago dituzten biztanle erabiltzaileen %)	31,1	%60
2. Internet administrazioari formularioak bidaltzeko erabiltzen duten pertsonak (15 urte eta gehiago dituzten biztanle erabiltzaileen %)	14,3	%40
3. Internet administrazioarekin erlazionatzeko erabiltzen duten administrazioak* (%)	36,7	%60

\* 2004ko datuak

JARDUERA ETA  
JARRAIPEN PLANAK

11



## 11.- JARDUERA ETA JARRAIPEN PLANAK

Lehen esan dena gogora ekarriz, Estrategia hau da jarduerak diseinatzeko epe laburrera erabiliko den erreferentzia estrategikoa. Estrategia definitzeko orduan, lehentasunezko jarduera-lerroak definitu dira.

Hala ere, Informazioaren Gizartea etengabe aldatzen ari den ingurune bat dela kontuan hartuta, orain aurkeztzen dugun Estrategia hau estrategia irekia da, alegia, eguneratu eta aldatu daiteke proposatutako helburuak lortzeko beharrezkoa denean.

Proposatutako diren strategiaren eta programa eta jarduerak guztien jarraipena eta eguneratzea egiteko orduan, honako elementu hauek barne hartuko dira:

- i-gipuzkoa2010 Estrategiaren urteko jarduerak  
Planak gauzatzeko jarduerak eta proiektuak barne hartuko ditu, bai eta horien deskribapena eta programa bakoitzera esleitutako baliabideak ere.
- i-gipuzkoa2010 Estrategiaren Aurrerapenaren urteko Txostena  
Aldian garatu diren programa eta jarduerari buruzkoa, horien balorazioa eta jarraipena barne hartuta.
- i-gipuzkoa2010: Gipuzkoa Informazioaren Gizartean. Urteko Txostena  
Gipuzkoa informazioaren gizartean prozesuaren aurrerapenari buruzko adierazleen eta informazio-iturrien azterketa zehatza egingo da. Era berean, beharrezkoa denean adierazle berriak erabiliko dira.

Agiri horiek guztiak eta i-gipuzkoa2010 Estrategiarekin erlazionaturako gai eta alderdi interesgarri guztiak [www.i-gipuzkoa.net](http://www.i-gipuzkoa.net) web-orrian jarriko dira.



ERANSKINA:  
PARTE HARTU  
DUTEN PERSONEN  
ZERRENDA

12





## 12.- ERANSKINA: PARTE HARTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA

Eranskin honetan i-gipuzkoa2010 Estrategia lantzeko gogoeta-prozesuan parte hartu duten pertsonen zerrenda ikus daiteke. Elkarrizketa pertsonalak eta/edo talde-lanak antolatu dira xede horrekin.

Zentzu horretan, Foru Aldundiak eskerrak eman nahi dizkie ondoren aipatu diren pertsona guztiei, lan honetan egindako ekarpenengatik eta ahaleginagatik.

- Agirrezabal, Nekane
- Agote, Garikoitz
- Alkain, Nieves
- Álvarez, Juan José
- Alzaga, Aitor
- Alzua, Aurkene
- Amenabar, María Angeles
- Amondarain, Joseba
- Aramberrí, Josu
- Aramburu, Manex
- Arozena, Arantxa
- Arranz, Javier
- Arruti, Lourdes
- Ayestaran, Sabino
- Azkue, Jokin
- Bailach, Fernando
- Balmaseda, Maite
- Baraze, Javier
- Barinaga, Ramón
- Beitialarangoitia, Juan Carlos
- Bengoetxea, Endika
- Bermejo, Victor
- Bernaras, Amaia
- Blanco, José Miguel
- Cáceres, Francisco Javier
- De Juan, José Ramón
- Cuesta, Alberto de la
- Cuesta, Alejandro
- Díaz Caballero, Natalia
- Echeverría, Javier
- Egia, Gotzon
- Etxebarria, Pilar
- Fabo, Mikel
- Familiar, José Ignacio
- Fernandez Jauregi, Ramon
- Flores, Isabel
- Florez, Julián
- Galdona, José Miguel
- Garaialde, Josu
- Garatea, Jokin
- Garitano, José Luis
- Goikoetxea, Mari Sol
- Gomez, Jaime
- González, Moisés
- Goñi, Juan José
- Goyoaga, Jaime
- Guinea, José Luis
- Ibarzabal, Oihana
- Iraola, Félix
- Irastorza, Anjel
- Iriarte, Marian
- Kerexeta, Roberto
- Kortabitarte, Iñigo
- Lafuente, José Luis
- Lakarra, Iñaki
- Larraza, Jokin
- Lejarzegi, Roberto
- Lizasoain, Luis
- Lopez, Javier
- López, Miguel Ángel
- López de Guereñu, Miguel
- López de Landatxe, Frantxis
- Lorente, Fernando
- Madrid, Aitor

- Maiza, Belen
- Maiztegi, Nekane
- Margeli, Blanca
- Marco, Iñigo
- Marroquín, Igor
- Martín Ríos, Ángel
- Mendizabal, Xabier
- Menoyo, Alfonso
- Morcillo, Ruth
- Múgica, Anartz
- Muguruza, Iñigo
- Nelson, John
- Nosellas, Izaskun
- Ojanguren, Leire
- Orbegozo, Aitor
- Orobengoa, Aitor
- Ortiz, Berex
- Payo, José Mari
- Penas, Miriam
- Pérez, M<sup>a</sup> Jesús
- Polanco, Mari Cruz
- Prieto, José
- Ramilo, Mentxu
- Reina, Enrique
- Rivero, Antton
- Ruiz de Alegría, Ignacio
- Sainz, Javier
- Segura, Javier
- Sumillera, Aritz
- Txintxurreta, Pablo
- Txurruka, Xabier
- Urbaneja, Luis Mari
- Uriarte, Cristina
- Vaquerizo, Patxi
- Zabala, Alex
- Zaldúa, Luis Mari
- Zapirain, Maria Jesús